

Euskarazko izen arrunten proposamena Eurasiako
79 txori espezierentzat

'Handboek Europese vogels' (Nils van Duivendijk) libururako
Lynx argitaletxeak egindako eskaera



EUSKAL
BATZORDE ORNITOLOGIKOA
COMITÉ ORNITOLÓGICO
DE EUSKADI

Asier Sarasua, Aitor Galarza, Maite Laso, Aitor Leiza,
Martin Rezola, Edorta Unamuno, Azaitz Unanue, Jon Zubiaur

2024ko martxoan

Euskal Batzorde Ornitologikoa

Izen arrunten proposamena Eurasiako 79 txori espezierentzat

‘Handboek Europese vogels’ (Nils van Duivendijk) libururako Lynx argitaletxeak egindako eskaera

Lynx argitaletxeak Nils van Duivendijk ornitologoaren “*Handboek Europese vogels*” liburuaren gaztelaniazko itzulpena argitaratu behar du 2024. urtean. Edizio horretan euskarazko izenak sartzeko proposamena egin zion Euskal Batzorde Ornitologikoak Lynx argitaletxeari eta horrek onartu. Liburuak Europako 750 hegazti espezie inguru biltzen ditu, horietako 208 espezie euskarazko izen arruntik gabeak Euskaltermen eta euskarazko hiztegi nagusietan.

Euskal Batzorde Ornitologikoak 208 espezie horiek aztertu ditu, denak ere ezohikoak Europa mendebaldean, eta horietatik 79 espezie aukeratu ditu, euskaraz nahiko modu errazean izendatzeko modukoak, kasurik gehienetan inguruko hizkuntza gehienek bide berbera jarraitu dutelako, asko eta asko izen zientifikotik abiatzen direlako eta euskaraz antzeko eredu formal eta linguistikoak ere baditugulako.

Hauexek dira lehenengo fase honetan aurkezten ditugun proposamenak 79 espezie hauentzat. Beste 119 espezie geratu dira 2. fase batean bataiatzeko.

Ez-paseriformeak

- *Ardenna tenuirostris*: **gabai tasmaniar** (inguruko hizkuntza gehien antzera, ezaugarri fisiko deskriptiboen faltan)
- *Calidris himantopus*: **txirri zankaluze** (*Himantopus* generoari egiten dio erreferentzia, zankaluzeari, alegia, horrelakoxeak dituelako bernak; *txori zezen*, *hontz gabirai* eta abarren eredu jarraituz bataiatu dugu txirri zankaluzea)
- *Calidris minutilla*: **txirri nano** (Wikipedian horrela zegoen bataiatuta, inguruko hizkuntza guztietan bezala, izen zientifikotik abiatuta)
- *Chlamydotis macqueenii*: **hubara-basoilo asiar** (Hubara-basoilo afrikarraren pareko asiarra delako; hizkuntza guztietan antzera jokatu dute)
- *Circus hudsonius*: **mirotz zuri iparramerikar** (gure mirotz zuritik sortutako split iparramerikarra)
- *Coccyzus erythrophthalmus*: **kukutxo mokobeltz** (inguruko hizkuntza geniehetan bezala, generikoa sortu dugu kuku txiki hauentzat, eta espezifikatzailea ere hizkuntza gehienetan da berbera)
- *Cuculus optatus*: **kuku siberiar** (genero honetan espezie gutxi daude, itxuraz antzekoak baina geografikoki erraz identifikatzeko modukoak; halaxe egin dugu, inguruko beste hizkuntza batzuetan bezala)
- *Cuculus saturatus*: **kuku himalaiar** (genero honetan espezie gutxi daude, itxuraz antzekoak baina geografikoki erraz identifikatzeko modukoak; halaxe egin dugu, inguruko beste hizkuntza batzuetan bezala)

- *Dendrocopos syriacus*: **okil siriar** (Wikipedian horrela zegoen bataiatuta, inguruko hizkuntza askotan bezala, izen zientifikotik abiatuta)
- *Francolinus francolinus*: **frankolin beltz** (ez dago zalantzarik, ez tradizioan oinarritutako generikoa erabiltzeko orduan, ez espezifikatzailean; inguruko hizkuntza gehienek bide berbera jarraitu dute, gainera)
- *Glareola maldivarum*: **ekialdeko pratinkola** (inguruko hizkuntza askotan bezala, gure pratinkolaren parekide asiarra)
- *Grus virgo*: **kurrilo txiki** (kurriloen arteko espezierik txikiena, nabarmen; bere kokapen taxonomikoa dantzan dabil, genero batean edo bestean, baina errazena da “kurrilo” deitzea eta kitto)
- *Himantopus mexicanus*: **zankaluze kaskabeltz** (genero txikia da hau eta erraz identifikatzen dira ezaugarri fisikoekin; espezie hau “kaskabeltza” edo “burubeltza” da, itxura horretako bakarra genero honetan)
- *Larus glaucescens*: **Beringo kaio** (inguruko hizkuntza gehienetan bezala)
- *Larus schistisagus*: **kaio kamtxatkar** (inguruko hizkuntza gehienetan bezala)
- *Larus thayeri*: **Thayer kaio** (ssp. da; inguruko hizkuntza gehienetan bezala)
- *Nannopterum auritum*: **ubarroi belarridun** (inguruko hizkuntza gehienetan bezala, ezaugarri fisiko nabarmenak jarraituz)
- *Pagophila eburnea*: **boli-antxeta** (inguruko hizkuntza gehienetan eredu jarraituz; gainera, Wikipedian “boli-kaioa” azaltzen da eta eredu bezala balio izan digu, nahiz eta larido hau antxeten taldean sartu behar den eta ez kaioen taldean)
- *Pernis ptilorhynchus*: **ekialdeko zapelatz liztorjale** (inguruko hizkuntza gehienetan bezala, gure zapelatz liztorjalearen ekialdeko parekidea)
- *Picoides tridactylus*: **okil hiruhatz** (izen zientifikotik abiatuta, beste hizkuntza batzuetan bezala; Wikipedian horrela zegoen dagoeneko)
- *Picus canus*: **okil gris** (Wikipedian aurkitu dugu eta baliagarria iruditu zaigu)
- *Porphyrio madagascariensis*: **uroilo urdin afrikar** (“uroilo urdin” generikoa sortu dugu genero osoarentzat. Fisikoki ez dira erraz bereizten eta izendatzen ahal, baina geografikoki nahiko erraz bereiz daitezke genero hoetako espezie nagusiak: afrikarra, eurasiarra, amerikarra eta abar)
- *Porphyrio martinica*: **uroilo urdin amerikar** (“uroilo urdin” generikoa sortu dugu genero osoarentzat. Fisikoki ez dira erraz bereizten eta izendatzen ahal, baina geografikoki nahiko erraz bereiz daitezke genero hoetako espezie nagusiak: afrikarra, eurasiarra, amerikarra eta abar)
- *Porphyrio poliocephalus*: **uroilo urdin burugris** (kasu honetan espezifikatzaile deskriptibo fisikoa erantsi diogu “uroilo urdin” generikoari, espezie honetan nabarmena baita buru gris hori eta inguruko hizkuntza batzuetan ere bide hori hartu dutelako)
- *Streptopelia orientalis*: **ekialdeko usapal** (inguruko hizkuntza gehienetan bezala)
- *Strix lapponica*: **urubi laponiar** (inguruko hizkuntza gehienetan bezala)
- *Threskiornis melanocephalus*: **ibis burubeltz** (izen zientifikoa eta inguruko hizkuntza guztiak jarraituz, nahiz eta espezifikatzailea ez den disgnostikoa, baina bereizgarri fisiko nabarmen baten faltan, hizkuntzen arteko koherentziari garrantzia eman diogu)
- *Tringa solitaria*: **kuliska bakarti** (inguruko hizkuntza gehienetan bezalatsu, latinetik abiatuta)
- *Zenaida auriculata*: **zenaida belarridun** (“Zenaida-uso” ere izan zitekeen generikoa; espezifikatzailea beste hizkuntzetan bezala aukeratu dugu, latinezkotik abiatuta)

- *Zenaida macroura*: **zenaida arrunt** (Zenaida generoko espezierik arruntena baita Ameriketara, askogatik; ez dauka ezaugarri fisiko nabarmenik beste izen bat proposatu ahal izateko)

Paseriformeak

- *Acanthis hornemanni*: **txoka artiko** (inguruko hizkuntza gehienetan bezalatsu, ezaugarri fisikoak baino hedadura geografikoak bereizten baitu espezie hau)
- *Anthus gustavi*: **Petxorako txirta** (inguruko hizkuntza gehienetan bezala)
- *Anthus hodgsoni*: **Hodgson txirta** (inguruko hizkuntza gehienetan bezala)
- *Arundinax aedon*: **lezkari mokolodia** (generikoak ez dauka zailtasunik; espezifikatzailea nabarmena, hizkuntza gehientsuenetan bezala)
- *Bombycilla cedrorum*: **buztanori amerikar** (Europako buztanoriaren parekoa)
- *Bucanetes mongolicus*: **gailupa mongoliar** (generikoa lehendik geneukan; espezifikatzailea izen zientifikotik abiatuta, inguruko hizkuntza batzuetan bezala)
- *Chrysolophus pictus*: **urre-faisai** (inguruko hizkuntza gehienetan bezala, eta urre-txirriren eredu jarraituz)
- *Emberiza cineracea*: **berdantza turkiar** (inguruko hizkuntza gehienetan bezala)
- *Emberiza rutila*: **berdantza gorritza** (inguruko hizkuntza gehienetan bezala)
- *Emberiza striolata*: **berdantza marradun** (inguruko hizkuntza gehienetan bezala)
- *Ficedula mugimaki*: **Mugimaki euli-txori** (inguruko hizkuntza gehienetan bezala)
- *Hesperiphona vespertina*: **mokolodi bekainori** (familia bereko 4 genero nabarmen dira mokolodiak: *Coccothraustes*, *Mycerobas*, *Eophona* eta *Hesperiphona*; filogenetikoki lotuta daude eta moko lodi nabarmena dute; 'mokolodi' generiko horri espezifikatzaile bereizgarria gehitu diogu, espezie honek (arrak) bekain hori nabarmena daukalako, oso-oso deigarria eta familiako beste espezieetan agertzen ez dena)
- *Iduna rama*: **Sykes sasi-txori** (inguruko hizkuntza gehienetan bezala)
- *Lanius borealis*: **antandobi boreal** (inguruko hizkuntza gehienetan antzera)
- *Lanius phoenicuroides*: **antandobi buztangorri** (inguruko hizkuntza gehienetan eta latinez bezala; erabaki honen ondorioz, *Lanius isabellinus* berrizendatu dugu, 'antandobi isabeldar'. Egoera berria zentzuzkoagoa eta koherenteagoa da, bai euskara mailan zein nazioartean, antandobi buztangorri asko daudelako, baina haxe delako buztangorriena, izen zientifikoa ere halaxe iradokiz eta, hortaz, erabakirik zentzuzkoena)
- *Locustella certhiola*: **Pallas benarriz** (inguruko hizkuntza gehienetan bezala)
- *Locustella lanceolata*: **benarriz marradun** (inguruko hizkuntza gehienetan bezala)
- *Loxia leucoptera*: **mokoker hegalzuri** (inguruko hizkuntza gehienetan bezala)
- *Loxia scotica*: **mokoker eskoziar** (inguruko hizkuntza gehienetan bezala)
- *Melanocorypha bimaculata*: **ekialdeko kalandria** (inguruko hizkuntza gehienetan bezala)
- *Melanocorypha mongolica*: **kalandria mongoliar** (inguruko hizkuntza gehienetan bezala)
- *Melanocorypha yeltoniensis*: **kalandria beltz** (inguruko hizkuntza gehienetan bezala)
- *Muscicapa dauurica*: **euli-txori arre** (inguruko hizkuntza gehienetan bezala)

- *Muscicapa tyrrenica*: **euli-txori mediterraneo** (inguruko hizkuntza gehien antzera)
- *Oenanthe cyriaca*: **buztanzuri zipretar** (inguruko hizkuntza gehien bezala)
- *Oenanthe finschii*: **Finsch buztanzuri** (inguruko hizkuntza gehien bezala)
- *Oenanthe halophila*: **buztanzuri magrebtar** (inguruko hizkuntza gehien bezala)
- *Oenanthe monacha*: **buztanzuri monje** (inguruko hizkuntza gehien bezala)
- *Oenanthe seebohmi*: **Atlaseko buztanzuri** (inguruko hizkuntza gehien bezala)
- *Passer moabiticus*: **txolarre moabtar** (latinetik abiatuta, inguruko zenbait hizkuntzatan bezalatsu)
- *Phylloscopus borealoides*: **Sakhalingo txio** (inguruko hizkuntza gehien bezala)
- *Phylloscopus nitidus*: **txio kaukasoar** (inguruko hizkuntza gehien bezala)
- *Phylloscopus tristis*: **txio siberiar** (inguruko hizkuntza gehien bezala)
- *Pinicola enucleator*: **pinu-gailupa** (inguruko hizkuntza gehien bezala, filogenetikoki gertu dagoen gailupa generikoa baliatuta)
- *Piranga olivacea*: **piranga gorri-beltz** (generiko berria, inguruko hizkuntza gehien bezala, latinetik eta bertako hizkuntza natibotik abiatuta; espezifikatzailean ezaugarri fisikoen alde egin dugu)
- *Piranga rubra*: **piranga gorri** (generiko berria, inguruko hizkuntza gehien bezala, latinetik eta bertako hizkuntza natibotik abiatuta; espezifikatzailean ezaugarri fisikoen alde egin dugu)
- *Prunella atrogularis*: **tuntun paparbeltz** (inguruko hizkuntza gehien bezala)
- *Prunella montanella*: **tuntun siberiar** (inguruko hizkuntza gehien antzera)
- *Prunella ocularis*: **Radde tuntun** (inguruko hizkuntza gehien bezala)
- *Ptyonoprogne fuligula*: **haitz-enara afrikar** (generikoa sortu dugu Ptyonoprogne generoko 3 espezieentzat eta kokapen geografikoa gehitu espezifikatzaile gisa, baita Europakoari ere, orain arte abizenik ez zeukana)
- *Saxicola stejnegeri*: **pitxartxar mantxuriar** (“amurreko” geneukan aurreko bertsioen batean, baina aldatu egin diogu koherentzia linguistiko eta formalarengatik)
- *Sitta tephronota*: **ekialdeko haitz-garrapo** (Mendebaldeko haitz-garrapoaren parekide asiarra)
- *Sylvia althaea*: **Hume txinbo** (ssp., inguruko hizkuntza gehien bezala)
- *Sylvia crassirostris*: **ekialdeko zozo-txinbo** (zozo-txinboaren splita, mendebaldekoaren parekidea)
- *Sylvia deserti*: **txinbo saharar** (inguruko hizkuntza gehien bezala)
- *Sylvia melanothorax*: **txinbo zipretar** (inguruko hizkuntza gehien bezala)
- *Sylvia ruppeli*: **txinbo paparbeltz** (inguruko hizkuntza gehien bezala)
- *Turdus atrogularis*: **birigarro paparbeltz** (inguruko hizkuntza gehien bezala)

Asier Sarasua (Euskal Batzorde Ornitologikoko idazkaria), Aitor Galarza (Bizkaiko Foru Aldundia), Maite Laso (Aranzadi Zientzia Elkarte), Martin Rezola (IVAP Euskal Institutua), Edorta Unamuno (Urdaibai Bird Center), Azaitz Unanue (Txepetxa Hegaztien Zientza-Eraztunketarako Elkarte), Jon Zubiaur (Kulixka Irteera Ornitologikoak), Aitor Leiza (Itsas Enara Elkarte Ornitologikoa).

Euskal Batzorde Ornitologikoa

